GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL
intef INSTITUTO NACIONAL DE TECNOLOGÍAS EDUCATIVAS Y DE FORMACIÓN DEL PROFESORADO
MINISTERIO DE HACIENDA Y FUNCIÓN PÚBLICA

GOBERNU IREKIA

Bigarren Hezkuntza

IRAKURKETA ERRAZEAN

Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia

Título: Gida didaktikoa Gobernu Irekia Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
Irakurketa Erraza

Documento Accesible

Publicación del programa de publicaciones del
Ministerio de Hacienda y Función Pública

Hecho por:

© Ministerio de Hacienda y Función Pública.
2021

Códigos para encontrar el documento original del Gobierno

NIPO: 277-21-024-9 (papel)
NIPO: 277-21-025-4 (en línea, pdf.)

Gobernu Irekiari buruzko Hezkuntza gida

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Gobernu Irekiari buruzko Hezkuntza gida 4

Zergatik egin dugu gida hau? 6

Nork egin du gida hau? 7

Zergatik egin dugu orain gida hau? 8

Nola ohitu gaitezke Gobernu ireki eta Administrazio kontzeptuetara? 9

Zer da Gobernu irekia? 11

Testuingurua eta eboluzioa 12

Gobernu irekiaren balioak 14

Gardentasuna 15

Kristalezko hormak 15

Gardentasunaren ataria 15

Parte-hartzea 19

Elkarlana 21

Sorkuntza bateratua 22

Laburpena 24

Institutu irekia eraikitzeko praktikak 25
1. praktika: Institutu gardena lortzeko 26
2. praktika: Institutu parte-hartzailea lortzeko..... 28
3. praktika: Elkarlaneko institutua lortzeko 30

Gehiago jakiteko baliabideak 32
Gardentasun atariak 32
Datu irekien atariak..... 34
Gardentasun Kontseiluen atariak 34
Argitalpenak 36

Hiztegia 37

Zergatik egin dugu gida hau?

Gida hau Bigarren Hezkuntzako irakasle eta ikasleentzako da.

Gobernu irekia gobernatzeko modu berri bat da.
Gobernu ireki bateko politikariak eta Administrazioetako funtzionarioak gutako bakoitza, hiritar bakoitza bezain partaide dira.

Gobernu irekia gardenagoa eta irisgarriagoa da
gaur egungo gizartera egokitzeko, baita bizitzen ari garen teknologia, gizarte, kultura eta ekonomia aldaketetara egokitzeko.

Gobernu irekiaren helburuak dira:

- Administrazioaren eta Gobernuaren ezaguerak sustatzea.
- Gobernu irekiaren printzipioetan oinarritutako kontzientzia zibikoa sortzea.
- Gobernu irekiari buruzko kontzeptu esparrua partekatzea nazioartean, baina baita eztabaidari ateak irekita ere.
- Hiritartasun demokratiko eta gardentasunaren erabilera sustatzea.
- Gobernu ireki baten politikak ezartzeko jardunbide egokiak ezagutzea.

Gobernu irekiak helburuak lortzen baditu,
aurrera egingo dugu gobernatzeko modu demokratiko baterantz,
gizarte kohesioarekin eta garapen ekonomiko aberatsarekin.

Gobernu irekia balio hauetan oinarritzen da:
gardentasuna, parte-hartzea eta elkarlana.
Gida honekin Bigarren hezkuntzako ikasleak
Gobernu irekiaren balio eta printzipioetara gerturatu nahi ditugu.

Nork egin du gida hau?

2 ikerlarik idatzi dute gida hau:
José Ignacio Criadok eta Vicente Pastorrek.

José Ignacio Criado

Irakaslea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan eta Berrikuntza Publikorako Gobernuko Laborategiko zuzendaria.
Twitterren izena du: @jicriado

Vicente Pastor

Ikertzailea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan eta Berrikuntza Publikorako Gobernuko Laborategian.
Twitterren izena du: @vipaspa

Irakurketa Errazera egokitzapena:
Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Erraza

Zergatik egin dugu orain gida hau?

Gobernatzeko modu irekia lehentasuna delako gaur egun,
bai hemen, bai munduko beste herrialde askotan ere.

Gobernu Irekirako Aliantza herrialde eta GKE ezberdinen ekimena da,
gardentasuna eta herritarren parte-hartzea bultzatzen ditu.

Aliantzako kide izateko Gobernu Irekiko Adierazpena onartu behar da.
Esteka honetan jaitsi eta ikus dezakezu:
https://www.opengovpartnership.org/declaracion-de-gobierno-abierto/

Espainiako Gobernu Irekiaren Plana
Gobernu Irekirako Aliantzarekin batera egindako programa bat da.
Esteka hau ikus ezazu:
https://transparencia.gob.es/transparencia/transparencia_Home/index/Gobierno-abierto/planes-accion.html

Ikusiko dituzu Gobernu Irekirako Aliantzako kideek
gauzatu dituzten Gobernu Irekiari buruzko 2.500 konpromiso.
Ikusiko duzu ere konpromiso horietako bat dela Gida hau egitea.

Nola ohitu gaitezke Gobernu ireki eta Administrazio kontzeptuetara?

Ikasgelan:

- **Parte-hartzea** sustatu ikastetxeetako hauteskunde prozesuetan.
- Prozesu hauetako **informazioa** eman:
  maila bakoitzeko ikasle kopuruak,
  ikasgelako lanen edo jardueren antolaketa, …
- Bultzatu ikasleen artean elkarlanean **erabakiak hartzea**.
- Erabaki hartzeen prozesuak **aztertu** eskola Kontseiluan eta akordioak **argitaratu**.

Eguneroko bizitzan:

- **Kontzientzia zibikoa** sortu ikasleen artean, Gobernu irekiaren printzipioetan oinarrituta.
- Gobernua eta Administrazioa **zer den azaldu**.

Gobernua organo politiko bat da.
1978ko Espainiako Konstituzioaren aginduz existitzen da.
Estatuko presidenteak eta Ministerioen ardura hartzen duten
ministro kopuru aldakor batek osatzen dute.
Autonomia Erkidego bakoitzean ere gobernu bat dago.

Administrazioa organo multzo bat da.
Herrialde baten gizartearen interes orokorrak zerbitzatzen dituzte
eta legearen arabera aritzen dira.
Administrazioa estatukoa, autonomiakoa edo tokikoa izan daiteke.

Estatu irekiak Estatuko botere guztiak batzen ditu:
betearazlea, legegilea eta judiziala.
Gobernuak eta administrazioak botere betearazlea dute.
Gida honetan Gobernu irekian jarriko dugu arreta,
baina ez ahaztu Estatuko beste botereekin eta gizartearekin duen lotura.



Zer da Gobernu irekia?

Gobernu eredu berri bat da.
Helburu du hauek bultzatzea:

- **gardentasuna** politikoen eta Administrazioko funtzionarioen jokaeran.
- herritarren **parte-hartzea**.
- **elkarlana** beste eragile politiko, sozial eta ekonomikoekin.

Helburu hauek oinarritzen dira gobernatzen dutenen
eta gainontzeko herritarren arteko elkarrizketan eta orekan.

Gobernu irekian etengabe elkarrizketan gaude
herritarrak ordezkatzen dituzten politikariak,
Administrazioko funtzionarioak eta baita gizartea ere.
Gizartea, zu, zure gelakideak, familia, lagunak,
Gobernu irekiaren egunerokoan partaide izan behar gara.

Testuingurua eta eboluzioa

Gobernu irekia hitzak aurreko mendean agertu ziren gobernuen eta Administrazioaren jokaera ez gardenak gutxitzeko, herritarrek haien funtzionamendua kontrolatu eta ebaluatzearen bidez.

Orain Gobernu irekiaren ideia berreskuratu dugu arrazoi hauengatik:

- Gardentasun politikoaren aldeko jarrera hazten ari da.
- Ustelkeria eta baliabide publikoak gaizki erabiltzearen arazoak gehiago agertzen dira komunikabideetan.
- Parte-hartzearen kultura hazten ari da globalizazioarekin.
- Gobernuek eta Administrazioak gero eta elkarlan gehiago behar dute gizartearekin arazo korapilatsuak konpontzeko.
- Komunikatzeko modu berriak agertzen ari dira.
- “Gizarte sare” bat hazten ari da sare sozial eta teknologiei esker.

Gure gizartean aldaketarik garrantzitsuenak gertatzen ari dira gure artean komunikatzeko modu berriei esker.
“Gizarte sare” berrian, ordenagailu, mugikor eta tabletak ikasteko eta lan egiteko modua eraldatzen ari dira.

Jarduerak egitea ere baimentzen digute sare hauen bidez, adibidez:

- eztabaida batean parte hartu Whatsapp kanal batean
- ideia batean laguntza eman Twitter bidez
- gure herriko politikariek egiten dutenaren informazioa lortu udaleko web orrian.

Guzti hau edozein tokitatik Internetera lotutako gailu batekin!

Wikipedia

Inoiz egon den ezagueren entziklopedia handiena da.
45 milioi artikulu baino gehiago aurki ditzakezu.
Elkarlanean idatziak izan dira, hau da, munduko toki askotako
pertsona boluntarioen ahaleginarekin eginak.

Zuk ere lagundu dezakezu Wikipedia garatzen.
Artikulu berriak idatzi edo argitaratuta daudenak hobe ditzakezu.

Adibidez, begiratu zure herriari buruzko informazioa
eta erantsi zure iritziz falta diren datuak.
“Editatu” atala klikatu eta “Hezkuntza”ko atala sor ezazu
zure herriko institutuen izenekin
eta haien historia pixka batekin.

Zure institutua bakarrik ezagutzen baduzu, ez kezkatu:
artikulua parteka ezazu eta gonbidatu
beste institutuetako ikasleak elkarlana egitera.
Artikulu baten edukia sortzeko modurik onena da hau.

Orain aurkitu Gobernu irekiaren definizioa Wikipedian
eta egiaztatu han agertzen den informazioa zuk dakizunarekin.

Gaur egungo Gobernu irekia ezin da bereizi
komunikatzeko eta teknologiako modu berridun
testuinguru sozial, ekonomiko, kultural eta politikotik.
Baina Gobernu irekia gobernuetan eta Administrazioan
teknologia erabiltzea baino gehiago da.

Gobernu irekia herritarren jarreraren esku dago,
gure praktika demokratikoen esku,
gizarteko gaietan sartzeko gure gaitasunaren esku,
eta gure bizitzan eragiten duten gaiei buruzko gure iritzi eta ekintzekin
politikariei lagunduko diegula ulertzearen esku.

Gobernu irekiaren balioak

Gobernu irekiaren balioak gobernuen eta Administrazioaren
ekintzetan presente daude,
baita bertan lan egiten duten pertsonengan eta gainontzeko gizartean.

Balioak hauek dira:

- **Irekitasuna**
  Jokaerak eta beste pertsonengan dituzten ondorioak erakustea.

- **Elkarrekiko konfiantza**
  Gobernuengan eta Administrazioarengan sinistea,
  organo horiek gugan, herritarrengan sinistu behar duten bezala.

- **Elkarlana**
  Beste pertsona eta erakundeekin
  elkarlaneko jokaera eta ekintzak bultzatzea,
  bakarka edo isolatuta eginda baino emaitza hobeak lortzeko.

- **Inklusibitatea**
  Pertsona guztiak kontuan hartzen dituen ekintzetan sinistea,
  haien egoera sozioekonomikoa, desgaitasun fisiko edo intelektuala,
  sexua, etnia, erlijioa edo ideia politikoak kontuan izan gabe.

- **Zintzotasuna**
  Beti jardutea zuzentasunez, leialtasunez, zintzotasunez,
  inpartzialtasunez eta fede onez.

- **Berrikuntza**
  Gauzak egiteko modu berriak garatzeko gai izatea,
  iraganean nola egin diren kontuan izan gabe,
  eta inguruan dugun guztia pentsatzeko modu berriak bilatzea.

Gardentasuna

Herritarrei gobernuei eta Administrazioari buruzko informazioa ezagutzea baimentzen dieten ekintza multzoa da.
Gardenak izateko, gobernuek eta Administrazioak beti argitaratu behar dute informazioa eta norbaitek behar izan edo eskatu baino lehen.
Gainera, gobernuek eta Administrazioak betebehar hauek dituzte: haien ekintzei buruzko azalpenak ematea eta hartzen dituzten erabakien erantzukizuna hartzea.

Kristalezko hormak

Gardentasuna da herritarrek duten modua gobernuek eta Administrazioak hartzen dituzten erabakiak eta haiek egiten dutena jakiteko.

Horri **kristalezko hormak** ere deitzen zaio.
Demagun zure udaletxeak kristalezko hormak dituela.
Kristala gardena denez, udalean gertatzen den guztia ikusiko genuke.

Gardentasunaren ataria

Espainian badago Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legea.
Honek biltzen du herritarrek duten eskubidea erakunde politiko eta administratibo bakoitzaren web orrian argitaratutako informazioa eskuratzeko.
Argitaratzen den informazioa aldizka eguneratu behar da.

Web orri gardenari ere **gardentasunaren ataria** deitzen zaio.
Bertan aurki ditzakegu:

- Administrazioen aurrekontuak
- Administrazioetan lan egiten duten goi-kargudunen soldatak
- kontratuak
- diru-laguntzak
- hitzarmenak beste administrazioekin…

Adibidez, Espainiako Gobernuaren Gardentasun Atariak
1,5 milioi informazio datu irisgarri baino gehiago ditu.
Gobernuko Ministroen curriculumak bilatu.
Goi-kargudunen baten agenda ikus dezakezu ere
eta haren sare sozialetako jarduerarekin konpara dezakezu.
Bat al datoz Atariko agenda eta sare sozialetakoa?

Gardentasunaren atariak hainbat atal ditu:

- Erakundearen informazioa:
  erakundearen gobernuari buruzko informazioa du.
- Arauen informazioa:
  erakundearen legeak ditu.
- Informazio ekonomikoa:
  gobernu edo administrazio erakundearen aurrekontuak ditu.

Gure informaziora iristeko eskubidea

Badago gardentasunaren atarian derrigorrez
egon behar ez den informazioa, adibidez selektibitateko notak.
Autonomia Erkidego batzuek eskatu dute eta argitaratu dira.

Gida honen bukaeran Autonomia Erkidego guztietako
gardentasunaren atarirako esteka aurkituko duzu.
Zure autonomia erkidegoko gardentasunaren ataria begira ezazu
eta baieztatu aurreko selektibitateko notak argitaratu diren.
Ez badaude, erabili informazioa eskuratzeko zure eskubidea
eta eskatu gardentasun atarian informazio hau argitaratzeko.
Hau lortzen baduzu, elkarbanatu zure gelakideekin
eta begiratu zuen institutua zein postutan dagoen.

Administrazioak 30 egun ditu herritarrei erantzuteko
eta eskatu dieten informazioa emateko.
Administrazioak erantzuten ez badu errekurtso bat
aurkez dezakegu dagokion **Gardentasun Kontseiluan**.



Gardentasun Kontseilua estatuko eta autonomiako organoa da.
Espainian Administrazioaren gardentasuna zaintzen du
eta horrelako egoerak konpontzen ditu.
Kontseiluaren web orrian aurki ditzakezu
eskuragarri ez dagoen informazioa eskatzeko
erreklamazio prozedura hasteko datuak.

Baita ere ikus ditzakezu erakunde publiko ezberdinei
egindako gardentasun gomendioen ebazpenak.
Begiratu zer gaiei buruz aritzen diren ebazpen hauetako batzuk
(https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/eu/Actividad/Resoluciones.html)
eta eskatu nahi duzun erakundeari ebazpen hauei lotutako informazioa.

Parte-hartzea

Herritar guztiei eragiten diguten ekintza eta erabaki politikoetan gizarteak duen inplikazioa da.

Aspaldi uste zen hezkuntza, kirol, liburutegi, garraio publiko edo parke eta lorategiekin zerikusia zuten ekintzak bakarrik ordezkari politikoen ardura zirela.
Gobernu irekian berriz, parte-hartzeak esan nahi du denak gobernuek eta Administrazioak hartu behar dituzten ekintzen partedun izatea.

Parte-hartze mekanismo ezberdinekin, herritarrek eragiten diguten proiektu publiko guztiei buruzko gure iritzia adieraztea lortuko dugu.
Horretarako, herritarren parte-hartzea ondo antolatu behar da eta horrelako arazoak saihestu behar dira:

- bakarrik pertsona talde batzuek parte-hartzea.
- parte-hartzeak gizartean benetako aldaketarik ez ekartzea.

Daukagun parte-hartze mekanismo ohikoena da **hauteskundeetako botoa**, baina badira beste hainbat, hala nola kontsultak, iradokizunak, kexak, eskaera eskubidea…

Adibidez, Estatuaren Administrazio Orokorrera eskaera egitea oso kutsatzaileak diren autoen salmenta eragozten duen legea onartzeko, edo herritarren kontsulta bat ikastetxeetako jangeletako menuan azukredun edariak ez emateko.

Parte-hartzeak ere balio du zerbitzu publikoak diseinatzeko.
Horretarako, interesdun erakundeak herritarrei galdetu diezaieke.
Adibidez, osasun zentro batek eskaintzen duen laguntza hobetzeko
auzokideei galde diezaieke edo haiekin mahai-inguru bat egin dezake.

Beste adibidea da Espainiako Gazteriaren Kontseiluarena,
Gobernu irekiaren 3. Planaren bitartez gazteen
eta tokiko eta Europako politika publikoen arduradunen arteko
elkar-eragitea bultzatzen du (http://www.cje.org/eu/).

Internet eta sare digitalekin parte-hartzea ez da aurrez aurrekoa izan behar.
Udal batzuetako web orrian adibidez, herritarrek erabaki dezakete
nola gastatu haien dirua edo kontsultak egin plaza bat birgaitzeko.
Eta hori etxetik atera gabe egin dezakete!

Madril eta Sevilla hirietan, udalak
Interneten plataforma espezializatua garatu du
herritarren parte-hartzea bultzatzeko.
Bilatu Decide Madrid edo Decide Sevilla
eta aurkitu zer parte-hartzeko prozesu egiten ari diren
eta haien herritarrei zer aukera eskaintzen dizkieten.



Elkarlana

Topaketa, elkarrizketa eta lan guneen multzoa da.
Zerbitzu publikoak diseinatu eta sortzeko helburuarekin,
bertan parte hartzen dute Gobernu guztiek, Administrazioak, herritarrek
eta gizarte erakundeek, hala nola irabazi asmorik gabeko erakundeek,
sindikatuek eta enpresa erakundeek.

Elkarlan kontzeptuak arreta jartzen du berrikuntza balioan,
hau da gauzak modu ezberdin batean egitea
edo lehenago irudikatu ezin zen modu batean egitea.

Alde batetik, garrantzitsua da gobernuek eta Administrazioak elkar ulertzea
eta denontzako konponbideak garatzea herritar gehienei on egiteko.
Bestetik, funtsezkoa da beste gizarte erakundeak aintzat hartzea
gobernuek eta Administrazioak ezin dituztelako jada
arazoak bakarrik konpondu.
Horretarako, herritarrak funtsezkoak dira
Gobernu ireki baterako elkarlanean,
edozein pertsonak gaitasun eta ezaguera erabilgarriak dituelako
gure gizarteari eragiten dioten arazo zehatzak konpontzeko.

Horrela, elkarlanak Gobernu ireki batean
erakunde asko, ezaguerak eta ideiak lotzen ditu.
Horrek kultura aldaketa sakona eskatzen du.
Sareko elkarlana berbera balio bat da
eta beharrezkoa da ikuspegi berriak bultzatzea
arazoak ezagutzeko, baita lan metodologiak
eta konponbide berritzaileak aurkitzeko praktikak ere ezagutzeko.

Azken finean, elkarlana osatzen dute
gure gizartetik sortzen diren ekimenek
arazo zehatz batek eragiten dien talde zehatz baten bizitza hobetzeko.
Adibidez, eskolako etekina hobetzeko ekimena izan dezakegu.
Ikasle, irakasle, familia eta adituen taldearen arteko elkarlanak
berrikuntza eredua emango liguke beste institutuetan erabiltzeko.

Elkarlanaren adibide bat da hau hirietako mugimendua arintzeko:
udal talde bat kezkatuta dago bizikletak gutxi erabiltzen direlako
herrien erdialdean. Elkarrekin lan egiten dute
Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioaren (FEMP) bitartez
konponbide berritzaileak irudikatzeko.
Proposamenak eta konponbideak proposatzen dituzte
eragin positiboa izateko ingurunean, osasunean,
pertsonen bizi kalitatean, tokiko denden jasangarritasunean…

Sorkuntza bateratua

Ezaguera sortzeko modu bat da
erakundeen eta herritarren arteko elkar-eragitearen bidez,
gizarte arazoei konponbide berritzaileak aurkitzea
baimentzen duten metodologiak erabiliz.

Sorkuntza bateratuarekin konponbideak
aztertu, esku hartu eta sortzen dira
eta kaltetutako pertsona eta erakundeen jokaera aldatzen da
gizarte arazoekiko begirada berri eta bateratu batekin.

Azken finean, sorkuntza bateratua berrikuntza irekira bultzada da
zerbitzu publiko berriak sortzeko edo daudenak hobetzeko.
Berrikuntza ideia berri hauen egite prozesu multzoa da,
ezartze eta eraldatzearekin batera gizarte osoaren alde.

Berrikuntza laborategia

Konponbideen sorkuntza bateratuko gunea da
eta Gobernu irekian elkarlanaren ideia jarraitzen du.

Txileko Gobernu Laborategia adibidea da.
Elkarlanerako dinamikak sortzeko tokia da
arazo ezberdinek eragiten dieten pertsona eta erakunde guztiekin.
Berrikuntzak sortzera bideratutako elkarlanaren praktikak
jarraibideak ditu eta lan metodologiak behar ditu eraginkorra izateko.

Beheko irudian ikus dezakezu Txileko
Gobernu Berrikuntza Laborategiaren metodologia prozesua.
Zerbitzu publikoen kudeaketa berritzailerantz bideratuta dago
sei faseren bidez.
Prozesu osoak eragile askoren esku hartzea du.

Txileko Gobernu Laborategiko web orriko irudia.
https://www.lab.gob.cl/innovacion-publica

Laburpena

Gida honekin Gobernu irekia ezagutu eta ulertzea nahi dugu.
Orain zuzenean eta gertutik eragiten dizun zerbait dela
ulertzea espero dugu.

Gobernu irekia filosofia bat da, gure gizartea gobernatzeko
eta gobernuak eta Administrazioa ulertzeko modu berri bat.
Filosofia hau gardentasunean, parte-hartzean eta elkarlanean oinarritzen da,
herritarren ezaguerak eta beharrak erabiltzeko helburuarekin
herritarrak gure gizartea hobetzean sartzeko.

Gure nahia da hemendik aurrera Gobernu irekiaren taldera elkar zaitezela.
Behar zaitugu.

Institutu irekia eraikitzeko praktikak

Gobernu irekia ezartzeko zure institutuan 3 praktika egingo ditugu.

Institutu batean gobernatzen duen organo multzo bat dago:

- zentroko zuzendaritza taldea:
  - zuzendaria
  - idazkaria
  - ikasketa-burua
- irakasle taldea
- eskola kontseilua
  - irakasle batzuk
  - ikasleen gurasoak
  - ikasle batzuk
  - udaleko ordezkariak.

1. praktika: Institutu gardena lortzeko

Institutu garden bat lortzeko hiru urratsak hauek dira:

1. informazioa aukeratu
2. behar dugun informazioa eskatu
3. informazioa ikertu eta dagokion testuinguruan erabili.

1. urratsa: Informazioa aukeratu

Hasteko, pentsatu zure institutuko web orrira
sartzen diren pertsonek behar duten informazio motari buruz.
Adibidez:

- ikasturteko programa, maila bakoitzeko irakasgaiekin
- institutuko hezkuntza proiektua
- ikasturtean gainditu ez dutenen notak eta tasak
- ikasgela bakoitzeko ikasle kopurua
- irakasle kopurua
- institutuko ikasturteko aurrekontua
  eta diru horrekin egiten diren ekintzak.

2. urratsa: Behar dugun informazioa eskatu

Orain eskatu aukeratutako datuak
idatzizko dokumentu baten bidez
eta aurkeztu ezazu zure institutuan.

3. urratsa: Informazioa ikertu eta dagokion testuinguruan erabili

Orain lortutako datuak erabil ditzakezu.
Informazio honen ikerketak zure institutua
hobeto ezagutzea baimenduko dizu
eta gauza onak eta hobetu daitezkeenak jakitea.

Informazio hau ere erabil dezakezu
herriko beste institutu batzuetako informazioarekin konparatzeko.
Daturen bat ematen ez badizute,
Gardentasun Kontseiluari esku-hartzeko eska diezaiokezu,
horrela zure informazioa eskatzeko eskubidea erabili ahal izateko.

2. praktika: Institutu parte-hartzailea lortzeko

Institutu parte-hartzailea lortzeko hiru urratsak hauek dira:

1. institutuan identifikatu gaur egun zein parte-hartze prozesu dauden eta beste zein egon litezkeen

2. parte-hartze moduak definitu: mekanismoak, baliabideak…

3. parte har ezazu!

1. urratsa: Institutuan identifikatu dauden parte-hartze prozesuak

Institutu batean ohikoa da parte-hartze prozesuak erabiltzea
ikasgelako Ordezkaria edo ikasleak
Eskola kontseiluan ordezkatuko duen ikaslea aukeratzeko.

Pentsatu nola ezarri daitekeen parte-hartzea beste egoera batzuetan.
Adibidez:

- ikasturte bukaerako bidaia aukeratzeko
- ikasgelaren izenean erabakiak hartzeko
- institutuko zuzendaritzan kexak edo iradokizunak aurkezteko.

2. urratsa: Parte-hartze moduak definitu

Parte-hartze prozesu batzuk modu batean bakarrik egiten dira.
Adibidez, ikasgelako Ordezkaria aukeratzeko parte-hartzea
bozketa sekretu baten bidez egiten da.
Parte-hartze modu berriak proposa ditzakegu,
hala nola inkestak online, antolatutako eztabaida-lekuak edo bilerak
ikasle guztien artean eztabaidatzeko eta erabakitzeko.

3. urratsa: Parte har ezazu!

Parte hartzeko eta erabakiak hartzeko prozesuan parte izateko unea da.
Ez baduzu parte hartzen, beste ikasle batzuek egingo dute
eta zugatik erabakiko dute.
Ez galdu aukera hau eta zure eskubidea erabili!

3. praktika: Elkarlaneko institutua lortzeko

Institutuko elkarlana bertan lan egin eta ikasten duten pertsonen artean izan daiteke, edo kanpoko pertsonekin ere, adibidez, guretzat interesgarriak izan daitezkeen zerbitzuak ematen dituzten elkarte edo enpresekin.

Elkarlaneko institutu bat edukitzeko hiru urratsak hauek dira:

1. gai gatazkatsuak identifikatu
2. barne dauden pertsonak identifikatu
3. elkarlana egin ezazu!

1. urratsa: Gai gatazkatsua identifikatu

Gai batzuetan elkarlana gomendagarria da,
hala nola, bidaia bat antolatzea edo eskolatik kanpoko jarduerak kudeatzea.
Gogoratu berrikuntza garrantzitsua dela elkarlanean.

2. urratsa: Barne dauden pertsonak identifikatu

Gai gatazkatsu bakoitzerako eragile ezberdinen elkarlana beharko da:
bizilagunen elkartea, GKEa, enpresa, herritarren taldea, irakasleak…

Hau erabaki baino lehen, dokumentu bat egin ezazu
elkarlanaren prozesuari buruz.
Dokumentuan xehetasun guztiak sar itzazu.
Elkarlan prozesu batean ondo antolatzea oinarrizkoa da.

3. urratsa: Elkarlana egin ezazu!

Elkarlana egiteko eta gai gatazkatsuetarako
konponbideak aurkitzeko prozesuko parte izateko unea da.
Elkarlanak baimentzen du gai gatazkatsu bat konpontzeko
modu berritzaileak, berriak eta ezberdinak aurkitzea.
Emaitzak aztertzea ere garrantzitsua da
eta prozesua positiboa izan den
edo hobetzeko aldaketak behar dituen.

Horrela baduzu Institutu irekia:

- gardena, informazio guztia denontzat erabilgarri dagoelako
- parte-hartzailea, erabakiak denon artean hartu direlako
- elkarlanekoa, gai gatazkatsuak konpontzeko barne egon direlako
  ikasle guztiak, haien familiak, hezkuntza taldea eta gizartea orokorrean.

Gehiago jakiteko baliabideak

Gardentasun atariak

Estatuko Administrazio Nagusiaren Gardentasun Ataria:
https://transparencia.gob.es/

Andaluziako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
https://www.juntadeandalucia.es/transparencia.html

Aragoiko Gobernuaren Gardentasun Ataria:
https://transparencia.aragon.es/

Asturiasko Gobernuaren Gardentasun Ataria:
https://transparencia.asturias.es/transparencia/

Kantabriako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
https://transparencia.cantabria.es/es/inicio

Gaztela-Mantxako Gardentasun Ataria:
https://transparencia.castillalamancha.es/

Gaztela eta Leongo Gardentasun Ataria:
gobiernoabierto.jcyl.es/web/es/gobierno-abierto-castilla-leon.html

Kataluniako Gobernu Irekiaren Ataria:
http://governobert.gencat.cat/es/transparencia/index.html

Ceutako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
https://ceuta.transparencialocal.gob.es/

Valentziako Erkidegoko Gobernuaren Gardentasun Ataria:
http://www.gvaoberta.gva.es/es/inici

Extremadurako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
http://gobiernoabierto.juntaex.es/transparencia/web/principal

Galiziako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
https://transparencia.xunta.gal/portada

Balear Uharteetako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
http://www.caib.es/sites/transparencia/es/inici/

Kanariar Uharteetako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
https://www.gobiernodecanarias.org/transparencia/

Errioxako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
https://web.larioja.org/portal-transparencia

Madrilgo Erkidegoko Gobernuaren Gardentasun Ataria:
https://www.comunidad.madrid/transparencia/

Melillako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
https://sede.melilla.es/melillaPortal/transparencia/se_principal1.jsp?language=es&codResi=1

Murtziako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
https://transparencia.carm.es/

Nafarroako Gobernuaren Gardentasun Ataria:
https://gobiernoabierto.navarra.es/es/transparencia

Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren Gardetasun Ataria:
https://www.gardena.euskadi.eus/hasiera/

Gobernu Irekirako Aliantza:
https://www.opengovpartnership.org/es/ (Open Government Partnership ingelesez)

Botere Judizialaren Gardentasun Ataria:
http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Transparencia/

Madrilgo Udalaren Ataria herritarren parte-hartzea sustatzeko:
https://decide.madrid.es/

Datu irekien atariak

Datu Irekien ataria, Espainiako Gobernua:
https://datos.gob.es/

Datu Irekien ataria, Europar Batasuna:
https://data.europa.eu/euodp/es/data/

Gardentasun Kontseiluen atariak

Espainiako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/index.html

Andaluziako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.ctpdandalucia.es

Aragoiko Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://transparencia.aragon.es/CTAR

Asturiasko Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/asturias.html

Kantabriako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/Cantabria.html

Gaztela-Mantxako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/castillalamancha.html

Gaztela eta Leongo Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.procuradordelcomun.org/

Informazio Publikoa Iortzeko Eskubidea bermatzeko batzordea:
http://www.gaip.cat/es/inici/index.html

Ceutako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/ceuta.html

Valentziako Erkidegoko Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
http://conselltransparencia.gva.es/es/inicio

Extremadurako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/extremadura.html

Galiziako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
http://www.valedordopobo.gal/es/el-valedor-do-pobo-organo-de-control-de-la-transparencia/

Balear Uharteetako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/islasbaleares.html

Kanariar Uharteetako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://transparenciacanarias.org/

Errioxako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/larioja.html

Madrilgo Erkidegoko Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/madrid.html

Melillako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.consejodetransparencia.es/ct_Home/transparencia/transparencia-en-espanya/melilla.html

Murtziako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.consejodetransparencia-rm.es/

Nafarroako Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://gobiernoabierto.navarra.es/es/consejo-transparencia/consejo-transparencia-navarra

Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasun Kontseiluaren Ataria:
https://www.gardena.euskadi.eus/gardentasuna/

Argitalpenak

Gobernu Irekiaren III. ekintza-plana:
https://transparencia.gob.es/transparencia/transparencia_Home/index/Gobierno-abierto/iiiPlanAccion.html

Gobernu Irekiaren IV. ekintza-plana:
https://transparencia.gob.es/transparencia/transparencia_Home/index/Gobierno-abierto/ivPlanAccion.html

Gobernu Irekiari buruzko Gutun Iberoamerikarra (2016):
https://www.sfp.gov.py/sfp/archivos/documentos/CIGA_2016%20final_knawtdh9.pdf

Telekomunikazioen eta Informazio Gizartearen Behatoki Nazionala (2013). Gobernu Irekiaren eskaria eta erabilera Espainian:
https://www.ontsi.red.es/sites/ontsi/files/demanda_y_uso_de_gobierno_abierto_en_espana.pdf

Criado, J. Ignacio; eta Ruvalcaba, E. (2017) ¿Qué es y qué se entiende por Gobierno Abierto? Análisis de la percepción e implementación del Gobierno Abierto en el ámbito local español:
https://novagob.org/documentos/que-es-y-que-se-entiende-por-gobierno-abierto-analisis-de-la-percepcion-e-implementacion-del- gobierno-abierto-en-el-ambito-local-espanol

Hainbat idazle (2014). Guía práctica para abrir Gobiernos. Manual de Open Government para gobernantes y ciudadanos:
http://www2.congreso.gob.pe/sicr/cendocbib/con4_uibd.nsf/F0CE9C642E7BC17205257F1400075324/$FILE/get_file.pdf

Xarxa d'Innovació Pública. (2014) 42 voces sobre el GobiernoAbierto:
https://issuu.com/clog_unlp/docs/42-voces1

Hiztegia

- **Berrikuntza**: ideia eta plan berriak.

- **Demokrazia**: erabakitzeko boterea herritarrek duten gobernu-modu bat da.
  Herritarrek presidentea bozkatzen dute hauteskundeetan.
  Lehendakariak gobernuan ordezkatzen ditu.

- **Elkarlana**: pertsona batzuek elkarrekin lan egiten dutenean, guztientzako hobekuntzak lortzeko.
  Elkarri laguntzen diote helburu komun baten alde.

- **Gardentasuna**: zerbait besteei den bezala erakusten denean.
  Argi eta zintzo erakusten da.
  Informazio irekia ematen zaie guztiei.
  Ez dira gauzak ezkutatzen.

- **Instituzioa**: erakunde edo entitatea.

- **Kontseilua**: 2 esanahi ditu.
  Norbaiti eman daitekeen gomendioa da.
  Beste pertsona batzuk ordezkatzen dituen talde bat da, adibidez, Eskola Kontseilua.

- **Kontuak ematea**: dirua eta egiten dituzun gauzak nola gastatzen dituzun jakinarazten duzunean.

- **Ordezkaria**: talde batek aukeratutako pertsona bat da, haien lekuan toki batera joan eta eskatzen diotena esan dezan.
  Adibidez, Gobernuko presidentea herritarren ordezkaria da Gobernuan.
  Edo, adibidez, gelako ordezkaria ikasleen ordezkaria da irakaslearen aurrean.

- **Parte-hartzea**: zure iritzia ematen duzunean eta talde baten edo gizartearen ekintzen parte zarenean.
  Adibidez, ikasle batek gelan parte hartzen du irakasleari galdetuz.

- **Proposamenak**: norbaiti zerbait egiteko ideia bat aurkezten zaionean.

- **Sarbidea**: zerbaitetara iristeko sarrera edo urratsa.
  Gida honetan informazioa eskuratzeaz hitz egiten da.
  Informazio bat ezagutzeko urratsa da.

- **Sorkuntza bateratua**: hainbat pertsona talderen
  batasuna eta elkarlana da arazo bat konpontzeko.
  Arazo zehatz baten inguruan lan egiten dute.
  Arazo hori konpontzeko ezagutzak eta esperientziak
  partekatzen dituzte.

- **Zerbitzuak**: gida honetan Zerbitzu Publikoei buruz
  hitz egiten dugu.
  Gobernuak herritarrentzat sortutako zerbitzuak dira.
  Zerbitzu publikoek herritarrei arreta emateko balio dute.
  Adibidez: Garraio Publikoko Zerbitzuak
  autobusak, metroa edo trenak dira,
  jendea hirian mugitu ahal izateko.
  Zerbitzu hori Gobernuak edo Administrazio Publikoak
  zuzentzen du.

“Europar Batasuna - Next Generation EU-k finantzatzen du. Hala ere, adierazitako ikuspuntuak eta iritziak egilearenak edo egileenak baino ez dira eta ez dituzte nahitaez islatzen Europar Batasunarenak edo Europako Batzordearenak. Ez dira Europar Batasuna edo Europako Batzordea horien erantzuletzat hartuko”.

«Financiado por la Unión Europea - NextGenerationEU. Sin embargo, los puntos de vista y las opiniones expresadas son únicamente los del autor o autores y no reflejan necesariamente los de la Unión Europea o la Comisión Europea. Ni la Unión Europea ni la Comisión Europea pueden ser consideradas responsables de las mismas».

Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana
GOBIERNO DE ESPAÑA

GOBIERNO DE ESPAÑA
MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL
intef INSTITUTO NACIONAL DE TECNOLOGÍAS EDUCATIVAS Y DE FORMACIÓN DEL PROFESORADO
MINISTERIO DE HACIENDA Y FUNCIÓN PÚBLICA